

Euzkal Aditza

Onela bereiz ditezke Euzkal Aditzaren eñoak:

- I) Jatorizko Eñoa.
- II) Sintetiko Eñoa.
- III) Eño Osoa.
- IV) Ariketa Eñoa.
- V) Oikera Eñoa.
- VI) Geroaldi Eñoa.
- VII) Erazle Eñoa.

I) Jatorizko Eñoa

Jatorizko euzkal aditzak kontsonante bat, bi, iru lau... ukan ditzake. Adibidez —jo— aditzak kontsonante bat du jatoriz, eta —j(i, y)— da. Eño soil oñek gogayera bat darakusgu, ta «ukaldi» edo «zartako» gogayera da.

Aditz onek ere —eo— jatoriz bere kontsonantea du, ta —eho, eyo— da aditza. Jatorizko kontsonantea —h, y— da.

Ar dezagun —jan— aditza. Bi jatorizko kontsonante erakusten ditu, ta —j n— dire. Baíta —joan— aditzak ere jatorizko bi kontsonante oyetxek —j n— erakusten ditu.

—Edan— aditzak bi kontsonante —d n— dakazki. Berebat —edun— aditzak ere bi oyetxek —d n— dakazki.

Biko kontsonantea, alaber, arkitzen da aditz auetako Jatorizko Eñoan: —ikasi (k s)—; ikusi (k s); ikuzi (k z); ebaki (b k); iduki (d k); edan (d n); edun (d n); ekañi (k r); etoñi (t r); jaso (j s); ibiñi (b l); hasi (h s); hazi (h z); irion (r n);

Iru kontsonante, beñiz, darakuste aditz auek beren Jatorizko Eñoan: —hegon (h g n); herosi (h r s); entzun (n tz n); irakufi (r k r).

Lau kontsonante ditu jatoriz, —hezagun (h z g n) aditzak.

Jatorizko Eñoak edo jatorizko kontsonante oyek orotako gogayera azaltzen dute. Gogayera abstraktu ta orokañena adirazten dute. Esangurarik muñiztuena ta batzutan askotarikoa adiraz dezakete.

Adibidez jatorizko kontsonante auek —j n— «jan» edo «joan» gogayera dakarte. Beste auek —d n— «edan» edo «edun» esangura azaltzen dute. Beste auek —k s— «ikasi» edo «ikusi» esangura, ta esangurarik muñztuena ta orokařena adirazten dute. Beste auek —h g n— «hegon» edo, ausaz, «hegan» esanaya.

Jatorizko Eřoak, beraz, adierarik abstraktuena, orokařena, muñztuena azaltzen du. Ořezkeroz, Jatorizko Eřoak ez du Noizko'rik, ez Aldimugarik adirazten. Ez du iraganaldirik, ez orañaldirik, ez geroaldirik erakusten. Ez du egintza edo gertaria Burutu danik ala ez danik azaltzen. Aditzeřo muñztuena dan ezkeru, bere adirazkaya muñztuena da, ta mieztuena. (Artoari gara (artagara) kentzen edo ebakitzen zayonean, Artoa «mieztu» esaten da.)

Adibidez —h g n— jatorizko kontsonanteek dakarten adirazkai muñztuen ori «kolokagabea, kolokaeziña» edo «irautasuna» litzake. Baita, ausaz, —hegan (?)— «egazko igikera» ere.

Oarbidez

Ziuřenik Euzkerak (ere) itzen (edo itz aunitzen) asieran kontsonanteren bat ukanen-edo zun. Askotan ba dakigu asierako ta itzen buruko kontsonantea galdu dala. Adibidez —kango (ango), kebengo (emengo), kala (ala), korapiřo (orapiřo), kabi (abi); hegon (egon), herosi (erosi), haiz (aitz)...

Ořezkeroz —ekaři— artzen ba'da, —k ř— dire jatorizko kontsonanteak. Bañan —ekhaři— artzen ba'da, —k h ř— ote dire oyek? Ez ote da metatesiren bidez oyen aldaketa gertatu? Ez ote jatoriz —hekaři, kekaři (?)— izan, eta jatorizko kontsonanteak bi izan ordeiz iru izan, onela —h k ř—?

Aditz au —ikhasi— jatoriz —ikkas— baldin ba'ledi, iru kontsonante —k k s— ditu. Metatesiren bidez sortu al da, onela —kikasi, hikasi, ikhasi (ikkasi)—?

Ez ote da —hizan— jatoriz, eta ořezkeroz jatorizko kontsonanteak iru auek —h z n—?

Esaniko metatesia bestetan ere agertzen da, adibidez, —goatza, ohatza; goartu, ohartu...?— edo —gogartu, goartu—?

II) Sintetiko Eřoa

Sinetiko Eřoa jatorizko bokalez eta kontsonantez sortzen da. Adibidez, -kar (ekaři); -gi (egin); -kus (ikusi); -kas (ikasi); -kuz (ikuzi); -go (hegon); -za (izan); -du (edun); -sa (esan).

EUZKAL ADITZA

Jatoñizko kontsonantea dan -n- galtzen da, agi danez, Sintetikoan. Baita delako «infinitivus constructus» edota «infinitibo joskera» ere -n- galduta sortzen da, onela —esa(n)te, iza(n)te, ego(n)te, egi(n)te...—

Sinetikoan, ba, bokalek zeazten edo mugatzen dute jatoñizko adirazkaya. Onela: —kAs— «ikasi» da; —kUs— «ikusi» da; —dU— «edun» da; —dA— «edan» da; —gO— «hegon, egon» da; —gA— «egan ?» da; —kAr— «ekañi» da; —kUr— «i(ra)kuñi» da; —tzAl— «itzali» da; —tzUl— «itzuli» da; —sA— «esan» da.

Ar dezagun —izan— aditza. —Ni naiz (niz, naz)— esatean, Orañaldia ta oraintxe bertan danik edozer adirazten du. Dan ezkerok, ezer ezin diteke EZ-IZAN batera edo batetan. DA ala EZ DA. Ta oraintxe bertan gertatzen da oñenbeste. —Izan— aditza bereizia ta beralakotxea da. Izatearen aditza da, filosofiaren aditza da. Geldiera ta Irautasuna adirazten du.

Zeñezkoak ere, zerguna edo esenzia bezela, berebat onela adirazten ditu —bikaña naiz, azkaña da, aundia zera...— Berez irautea adirazten du, delako «status» azaltzen du. Izatezko maila da, ez da egintza edo gertaria azaltzen. Aditz laguntzañeak adirazten du, beñiz, Aldimuga.

—Ni bikaña naiz, zu azkaña zera— esatean, aditz laguntzañeak adirazten du Aldimuga.

—Ni bikaña nintzen, zu azkaña zintzen— esatean, iraganaldia adirazten du.

Aditz oñek delako «status» edo «Izanera» adirazten du. Ez da, ez egintza, ez gertaria, ta ez da oñezkerok «Burutu» beañik aditzaren esangura.

Ar dezagun —dakart, nator...— Aditz oyen —ekañi, etoñi...— esangura une aunitzekoa dan ezkerok, une eñezkada adirazten du. Orañgo eñezkada adirazten du. Orañaldia da azaltzen duna, bañan ez da «burutua», ez «burutugabea», onela baizik «burutzen» doana.

Onela ere esan diteke —ekañi dakart, etoñi nator...— Une eñezkada azaltzen du, burutzeko dan egintza edo gertaria adirazten du. Esakun oyetan —ekañi, etoñi...— Jerundioak-edo dire, edo Jerundio erara erabiltzen dire.

Onela, beñiz, esaten ba'da —ekañi, ekañi det; etoñi, etoñi naiz...— esakun auek goragokoekin ez dire ideko. Onoko auetan —ekañi, etoñi...— gogai abstraktua ta muñiztua ipintzen da nabari. Esakun auetan egitea edo gertaria «burutua» dala, adirazten da. Auñeko esakunetan, beñiz, —etoñi nator, ekañi dakart...— aditzeoak, biak baterikoak, noski, une askotako esangura adirazten da, luzaroko ekitaldia ta etengabekoa adirazten da. Ez da «burutua», ez egintza, ez yazokaria.

Alere, batzuek uste dutenez, —dakart, nator...— esatean, «oraintxe nator» esan nai du, ta Orañaldiko egintza edo gertari bat adiraziko luke. Ba-

ñan delako «progresivo» da. Orañaldiko egintza edo gertaria «burutua» ez da. Ekitaldia ta érezkada da, ta oraindik «burutugabea, bukatugabea» da /edo litzake/.

III) *Ero Osoa (edo Betea)*

Bokalez osatzen da edo betetzen da Jatorizko Aditzeñoa. Adibidez —j n— onela —jan— edo —joan—; —d n— «edun» edo «edan»; —k s— «ikasi» edo «ikusi»; —hgn— «hegon»; —h z g n— «hezagun»...

Aditzeño Oso oyek —ekafi, etofi, edun, joan, hezagun...— batbederak bakoitzalako gogaya ta esangura dakar.

Ziurénik Sintetiko Eñoak diren —go, tzul, tzal, kar, tor, kus, kas, sa...— oyek, eta Aditzeño Osoak diren —hegon, itzuli, itzali, ekaí, etofi, ikusi, ikasi, esan...— berdiñak dire.

Aditzeño Oso oyek esangura zeaztu ta mugatu bat erakusten dute, bañan adiera ta gogai orokañak dire, orotako esangura abstraktua adirazten dute. Batak «itzali» esangura, besteak «itzuli», besteak «edun», besteak «edan» adiera muñiztuena, besteak «ekafi» adiera soila adirazten du.

Sinetiko Eñoa, baña, Sintetiko Aditza osatzeko da, ta Aditzeño Osoa, beriz, perifrasis esakunak osatzeko. Bañan adiera ta esangura batbera da, esangura orokaña ta bakoitzalakoa da. —Ikusi— aditzak esangura orokaña ta abstraktua erakutsi añen, «adiera zeatza ta mugatua» dakar, eta «ikusi», ain zuzen, da. Ez da, ba, «ikasi». —Itzali— aditzak esangura zeatza ta mugatua dakar, orokaña ta muñiztua izan añen. «Itzali» da, ain zuzen ere, eta ez da «itzuli».

Ez Sintetiko Eñoak, ez Eño Osoak ez du «burutua» danik ala ez danik gertaria edo egintza, adirazten. Ezta «burutugabea» ere danik ezaguerazten. Baña bi asmo oyek adirazteko gai dire. «Burutua» dan ala ez dan gertaria edo egintza aditz laguntzañeak adirazten du.

Adibidez, —egin det, egin nu(e)n; etofi naiz, etofi nintzen— esatean, «burutua» da egiña ta burutua da gertaria. Yardute bat eta gertari bat bakaña adirazten dute. «Burututako» gertaria, alaber, adirazten dute.

Aditzeño Osoak «burutugabeko» gertaria edo yardutea ere adiraz dezake. Adibidez —egin nezan, etofi nendin...— esatean, gertariaren zertarakoa adirazten dute, bañan ez da «burutua». —Egin dezadan, etofi nadin— esatean, ez da burutu oraindik gertaria edo yazokaria. Egingabea da.

Onela, beriz, —egin dezaket, egin nezake, egin nezakean, etofi naiteke, etofi ninteke, etor(i) nintekean...— esatean, yarduteko «gaitasuna» adirazten da, bañan ez da buruturiko ezer.

EUZKAL ADITZA

Norbaitek onela yardetsi dezake —egin, erori, ekañi,...— adizkiek «burutua» dan gertaria edo egintza adirazten dutela. Zergatik eta —egin-A, etoñi-A, ekañi-A...— adizkiek «burutua» dan zerbait adirazten dutelako.

Erantzuna onela:

a) baita onela ere —egin-gaia, etor-kizuna, erabaki-gaia, etor(i)-kiña...— berdintsu esaten da. Itz oyek, beñiz, «etorkizuna, egingabea, burutugabea» adirazten dute.

b) —egiña, ekaña...— adizki izenduak dire. Bokalek adiera aldatzen dute. Izen maila dute itzek.

Oñezkeroz, Aditzeo Osoa batbera ta aldakaitza dalarik, batzutan «burutua» da egintza edo gertaria; bestetan, beñiz, «burutugabea» da, ta elburua adirazten dute; bestetan, beñiz, «gaitasuna» azaltzen dute. Ez da «buruturiko» ezer adirazten, burutzeko laña baizik.

Esakun oyetan denetan Aditzeo Osoa beti batbera da —ikus, ikasi, etoñi, edun, edan...— Oñegatik, denetan esangura ta adiera abstraktu ta orokaña darakuste. Abstraktua ta muñztua erakutsi añen, alere gogayera ba-koitzalakoa ta mugatua da. Ez du, oñatio, Aldimugarik bereizten. Ezta ez du «burutua» ala «burutugabea» dan gertaria edo egintza azaltzen. Aldimuga aditz laguntzañeak azalduko du. Burutugabea da, noski, elburua adirazten duncan, edo gaitasuna edo eziña adirazten duncan.

Berdin da onela —ekañi, etoñi, ibiñi...— izan, eta beste onela —ekar, etor, ibil...— izan. Azken izki —i— ori galdu egiten da(batzutan), denbora batzuetan. Adibidez —ekar dezadan, ekar ezak, ekar nezan; etor adi, etor ditezen, etor zitezen—

a) Bi forma oriek berdiñak dire, —n— alakotxe formetan edo konjugazioetan ez da galtzen-eta. Adibidez —egon adi, esan dezadan, esan nezan...—

b) Ezta beste Aditzeo Osoetan ere —ebaki, erabaki, jagi...— ez da —i— izkia galtzen.

c) Beste aditzeo ontan ere galtzen da —ibil(i)tzen, ekar(i)tzen, etor(i)tzen...— Bañan —n— ere berebat galtzen da aditzeo oyetan —ego(n)-ten, esa(n)ten...—

Beraz, —egon nadin— esakunean —n— ez ba'da galtzen; eta —etor nadin, etor adi...— esakunetan —i— galtzen ba'da, beralazko lege baten eragitez galtzen da.

Azkenik, zer da —ekañi, ibiñi, egon, esan...—?

Batzuek «partizipioa» dala uste dute. Baña «burutugabeko» aditz formetan ere berbera da.

Bestetzuek «infinitiba» dala uste dute. Bañan iraganaldia ta igaroa ere forma oyetxekin adirazten da.

Bestek esan lezake «jerundioa» dala. Ausaz, Jerundioa litzake.

Beti, baña, esangura orokaña, adiera abstraktua ta muñztua erakusten du. Oñezkeroz, Aditzeño Osoak berez onenbeste darakus, ots, «esangura abstraktua ta adiera orokaña». Noizko'rik, ez oraingorik, ez iraganaldirik, ez geroaldirik, ez burutu danik, ez burutugabe danik, ez luke adiraziko. Berez *Aoristo* utsa da.

Ausaz, «bereartango infinitiboa» (absoluto) izanen litzake. Ta —ekar(i)tzea, etor(i)tzea, ibil(i)tzea, esa(n)tea, ego(n)tea...— «Joskerazko(?) Infinitiboa» litzake, edo «constructus» deritzana. Bere biurtura edo deklinabidea du onek: —egitearen, etortzeari...—

IV) *Ariketa Eñoa*

Ariketa Eñoa —egiten ari, etortzen ari— da. Lenbiziko aditzeñoa «egiten, etortzen— Jerundioa-edo da.

Ezin diteke onela esan —egin ari naiz; egin ari nintzen; egin ariko naiz; egin ariko nintzake; egin ari nintekean;...—

Beraz, —egiten, etortzen...— jerundioak-edo erabili bear dire, onela —egiten ari naiz, ekartzen ari naiz, egin ariko nintzake, egin ari nintekean...—

Esakun oyetan denetan —ari— aditzak adirazten du berariz «irautea, érezkada». Ortaz gañera, —egiten, etortzen— Jerundioa-edo datorkio egoki —ari— aditzari. Beraz, Ariketa Eñoa orixe da —egiten ari, ikasten ari—

a) —Egiten ari naiz— esatean, aditz laguntzañak mugatzen du Aldimuga dan Orañaldia. Baña «burutugabea» da egintza edo gertaria.

b) —Egiten ari nintzen— esatean, aditz laguntzañak mugatzen du Aldimuga ta Iragana erakusten du, baña «burutugabea» da egintza edo gertaria.

c) Ez da berdin onela esatea —Egiten det, etortzen naiz— Esakun oriek Oikera adirazten dute.

d) Ez da berdin onela esatea —Egin det; etori naiz; egin nuen; etori nintzen— Esakun oyek «burutua» izan dala egintza edo gertaria, adirazten dute-eta.

EUZKAL ADITZA

V) *Oikera Eñoa*

Oikera Eñoak oiko yarduera adirazten du. Eño ori —egiten etortzen— atzizkiakin (-TEN, TZEN) osatzen da.

Adibidez —egiten det; egiten nuen; etortzen naiz, etortzen nintzen—

Ez du Aditzeño oñek «burututako» ekiñaldi bat, edo «burututako» yardute bat erakusten. Oikera bat adirazten du.

Esaera ontan ere —Oraintxe egiten det— ez du adirazi nai ekite bat egin edo bukatu dedanik. Aldimuga ontan egin OI dedala, adirazten du.

—Oraintxe egin det— esatean, «burututako» egintza edo gertaria azaltzen da. Bañan —Oraintxe egiten det— esatean, ez du «bukaturiko» ezer adirazten berariz. Delako «in oblicuo» edo zearka adirazten du burutua izan dan egintza edo gertaria. Ori, beriz, ausaz adirazten du.

VI) *Geroaldi Eñoa*

Atzizki auk -GO, -EN Geroaldia adirazten dute. —Nik egingo det, egingo nuke, eginen nuke, etoñiko naiz, egonen naiz, etoñiko nintzake...— yardulearen asmoa erakusten dute. Bañan ez dute «burututako» ezer, egintza izan, gertaria izan, adirazten. Eginkizuna ta gertakizuna da adirazten duna, bañan ez da «burutua» izan. Burutugabeko gertakizuna edo eginkizuna da.

VII) *Erazle Eñoa*

Bitara osatzen da Erazle Eñoa: A) —R— auñizkia Jatotoñzko Eñoari geituta. B) Eño Osoari -erazi -erazo (-azi, -azo) aditza erantsita.

Azter ditzagun sañlean bi lege oyek:

A) Adibidez —jalgi, eRalgi; jalki, eRalki; jaso, eRaso; jatxi, eRatxi; hautsi, eRhautsi; jagi, eRagi; hatzi, eRahatzi; jaulki, (yaulki), eRaulki; joan, eRoan; jaitsi, eRaitsi; jantzi, eRantzi; jasan, eRasan;

Oar ezazu —J— izkia, edo baita —Y— izkia ere, bere jatotoñiz eta berezko legez erdibokala erdikontsonantea dala. Oñezkeroz, onelako aditz Eño Osoetan —jalki, jalgi, jaulki, jatxi, jagi, jaiki, joan...— ikusten danez, erdibokala, edo obeto esan, Bokala da. Oñegati, —J (Y)— izkia galdu ere galtzen da Erazle Eñoa sortzerakoan.

Emazu, ordea, —eRajo—. Aditzaren Eño Osoa —Jo— aditza da, ta Erazle Eñoa sortzen danean —eraJo— irauten du, —J(Y)— rik galtzeke. Beraz, kontsonantea da. Beste Erazle Eño auetan bezelaxe —irabildu, erabil-

du, erhautsi, erahatzi,...— kontsonanteak dire —B, H—. Daudenez daudel —J(Y), B, H— berebateko kontsonanteak dire.

gorago aipatu ditugun aditz Efo Osoak ere Erazle Efoak[(A) saiñean, noski)] azter ditzagun, Jatoñizko Efoak nola diren jakiteko.

Onelako érezkadan doaz kontsonanteak: —jalgi (JLG), eralgi (RLG); jalki (JLK); eralki (RLK); jaso (JS), eraso (RS); jatxi (J TX), eratxi (R TX); jagi (JG), eragi (RG); jaulki (JLK), eraulki (RLK); joan (JN), eroan (RN); jaitsi (J TS), eraitsi (R TS); jantzi (J N TZ), erantzi (R N TZ); jasan (JSN), erasan (RSN)...

Goragoko oarkuna gogarazita, —J(Y)— bokala dan ezkerok, galdu egiten da.

Oñenbestez, ziuarki ageri da Erazle Efoari dagokion legea, —R— kontsonantea bein ere utsik egiteke, Auñizkia da-eta. Beraz, Erazle Efoa Jatoñizko Efoari Auñizkitza —R— kontsonantea geituta, sortzen da.

Akutzu, ordea, —I— bokala ez da galtzen Erazle Efoetan, ots: —ito, Irato; igafi, Iragafi; ikasi, Irakatsi; igazi, Iragazi; izeki, Irazeki; idoki, Iradoki; itzafi, Iratzafi...

Oñezkerok, gorago aipaturiko Jatoñizko Efoetan —R— kontsonantea Auñizkia ba'da, orain aditz Efo Osoetan kontsonante berbera «Ertizkia» litzake, onela: —iRato, iRagafi, iRakatsi, iRagazi, iRazeki, iRadoki, iRatzafi...

Dakusgunez, ba, Efo Osoetan buruko izkia erdibokala erdikontsonantea baldin ba'da, —joan, jasan, jantzi, jalgi, jalki, jaso...— Erazle Efoetan galdu egiten da —eR(j)oan, eR(j)asan, eR(j)antzi, eR(j)algi, eR(j)alki, eR(j)aso...—

Efo Osoetan, beñiz, buruko izkia —I— bokala, noski, baldin ba'da, Erazle Efoetan irauñ egiten du galtzeke —Irato, Iragafi, Irakatsi, Iragazi, Irazeki, Iradoki, Iratzafi...—

Oñela izatera, baña, —R— kontsonantea Efo Oso ayetan —joan, jasan, jantzi, jalgi, jalki, jaso...— buruko izkia erdibokala erdikontsonantea danean, Auñizkia da —eRoan, eRasan, eRantzi, eRalgi, eRalki, eRaso...— Erazle Efoetan. Euzkeraz, beñiz, —R— kontsonanteak ezin ba'du itzik asi, ta itzaren buruan bere legez —Er, Ar...— asi bea'ña ba'du, beti da Auñizkia —R— ori, ta ez da —E— ori. —R— kontsonantearen nolanaiko bokala da —E— ori.

Erdibokala erdikontsonantea izanik, beñiz, egin zezakean onela —Iroan, Irasan, Irantzi, Iralgi, Iralki, Iraso...— bañan ez du egiten, eta buruko —J— erdibokala erdikontsonantea galdu egiten da.

Bestaldetik, baña, —I— bokala ez da galtzen Erazle Efoetan —Ito, Irato; Igafi, Iragafi; Ikasi, Irakatsi; Igazi, Iragazi; Idoki, Iradoki; Izeki, Irazeki...

EUKAL ADITZA

Oñezkeroz, ba, Erazle Eño oyetan, agi da, —I— bokala Auñizkia da, ta ez da —R— kontsonantea. (Gogora, —R— kontsonantea Jatorizko Eñoetan beti Auñizkia dala.)

Ar ditzagun Erazle Eño auek —erajo, irabildu, (erabildu), iragan...— Kontsonante auek —J(Y), B, G— irauten duten ezkerro, —R— Auñizkia da, ta —E, I— ez dire Auñizki, —R— kontsonantearen nolanaiko bokal utsak baizik.

Ar ditzagun —hatzi, erahatzi; hautsi, erhautsi...—, —J— bezela estañotsa dan —H—, erdibokala erdikontsonantea da. Ta —erahatzi, erhautsi—oyetan irauten ba'du, —J(Y), B, G— bezela kontsonantea da. Beraz, —R— Auñizkia da Erazle Eño ortan, eta —E— bokala, beñiz, —R— ren nolanaiko bokala.

—Heraatzi, herautsi edo metatesi gertakuna izan diteke, edo bokaltzat asmatzen da. Bi auetan —R— Ertizkia (infijo) litzake. Beste aditz au—hezagun. Erazle Eñoan —erezagun, erazagun— da. Lenbiziko forma —EREzagun— —H— ren eragitez izan diteke, ta bigařena —erazagun—, beñiz, lege ařuntaren bidetik osatuko litzake.

Oñezkeroz, —hatzi, eraatzi; hautsi, erautsi; hezagun, erezagun; erazagun— eta goragoko —jaiki, eraiki; jalki, eralki; jasan, erasan...— Erazle Eño guzi oyetan —R— Auñizkia litzake, ta —E— bokala —R—ren nolanaikoa litzake.

Oyetan ez ezik, beste auetan ere —atxiki, iratxiki; atxeki, iratxeki; atzaři, iratzaři; eman, ereman; ekari, erekaři; egin, eregin; jeiki, ereiki...— Erazle Eñoak ez du egiten onela —Aratxiki, Aratxeki, Aratzaři...— eta beste oyetan —EReman, ERekaři, ERegin, ER(j)eiki...— egiten du. Beraz, Erazle Eño oyen —IRatxiki, IRatxeki, IRatzaři, EReman, ERegin, EReiki...—, —R— litzake Auñizkia ta bere aũeko bokala, beñiz, —R— beraren nolanaiko bokala.

Ar ditzagun, azkenik, aditz Eño Oso auek —eman, egin, egon, edoski, edan...— Oyen Erazle Eñoak onela dire —eraman, eragin, eragon, eradoski, eradan...—

Nola eratortzen diren Erazle Eño oyek, orixe da auzia. Lenbizi, ba, —ERA(e)man, ERA(e)gin, ERA(e)gon, ERA(e)doski, ERA(e)dan...— sortuko ba'lira, goragokoak entzun ondoren, baita Erazle Eñoetan ere —R (era)— Auñizkia litzake. Gero, beñiz, onela asmatzen ba'da —E-ra-gon, E-ra-man, E-ra-gin, E-ra-doski, E-ra-dan...— Erazle Eñoetan —R— Ertizkia izanen litzake, ta ez Auñizkia. Oñezkeroz, —I-ra-to, I-ra-itsi, I-ra-gaři, I-ra-katsi, I-ra-gazi, I-ra-ulki...— bezela sortuko lirake.

B) Bestetan Erazle Eñoa —erazi (azi), erazo (azo)— Eño Osoari erasten zayo. Batzutan Eño Osoaren ordeztu Erazle Eñoa ere izan ditekete.

a) Adibidez —ahantzi, ahantzi-erazi; edan, edanerazi; ekañi, ekañerazi; ezagutu, ezaguterazi; ezaguerazi; entzun, entzunerazi; eraman, eramarazi; eratzan, eratzanazi, (arazi); azaldu, azalerazi; eman, emanerazi, emarazi; soñerazi; sañerazi...—

[(Bidenabañez galdera bat datorkigu eskuartera: —sortu, sartu...— ez ote ziren jatofiz —soñi, sañi...?—)]

Oñezkeroz, adituz Eño Osoari erantsiko litzayoke —erazi (azi), erazo (azo)— Erazle Eñoa. Oñela, aditzari aditza lotuta gertatuko litzake beña.

b) Bestetan, beñiz, onelakoetan bezela —belduñerazi, egañerazi, damuerazi, gogarazi, pozarazi...— Izenari erantsiko litzayoke -erazi, -erazo.

c) Bestetan, beñiz, onelakoetan bezela —alayerazi, bizkoñerazi, azkañerazi, zabalerazi, gogoñerazi...— Izenlagunari erantsita litzayoke -erazi, -erazo dan Erazle Eñoa.

d) Bestetan, beñiz, onelakoetan bezela —aitzinerazi, atzera(ra)zi, aldera(ra)zi, urbiñerazi, urñerazi...— Aditzondoari (Adverbio) erantzitzen zayo Erazle Eñoa.

Erazle Eñoak darakusen esangura

a) Batzutan aldatu egiten da Eño Osoaren adiera. Adibidez —jaso, eraso; jantzi, erantzi; ebaki, erabaki; eman, eraman; ibili, erabili; entzun, erantzun...— Adituz Eño Oso oñen adiera ta ondorengo Erazle Eñoena ez da berbera, bitarikoa baizik.

Batzuek —erabaki, erabili...— materiazko esangura moralezko esangura biurtzen dute.

b) —R— Auñizkiak Ekintzaren edo Egoeraren Asiera edo ekitaldia adirazten du. Adibidez —egin, eragin (edo egiteari ekin); izan, irazan (edo izaten asi); egon, eragon (egoteari ekin edo egoteari iraunerazi); asi, irasi (edo lenbiziko ekiñaldia); itzari, iratzari (edo itzariaren asiera); etzan, eratzan (edo egoera oñen asiera); ekin, irakin (ekitaldiaren asiera).

c) Bestetan, —R— Auñizkiak ekintza edo gertaria erabat bete dala, adirazten du. Adibidez —jo, erajo (edo luña erabat jo); jatxi, eratxi (edo norbait erabat jatxi); jalki, eralki (erabat jalki); bildu, irabildu...—

-ERAZI, -ERAZO atzizkia dan Erazle Eñoak:

a) Egintzaren lenbiziko ekiñaldia adirazten du. Adibidez —ekañerazi, etoñerazi, egiñerazi, sañerazi, soñerazi, eramarazi, adierazi...—

EUZKAL ADITZA

b) Izenetiko aditzak osatzean, Zeñezkoaren soñera adirazten du. Adibidez, —alayerazi (alaitasunaren asiera); belduñerazi, egañerazi, maitaerazi, ahalkearazi, bizkoñerazi...—

c) Aditzondoari (Adverbio) erantsita, Egoera baten asiera adirazten du. Adibidez —aitzinerazi, atzera(ra)zi, alderazi, zabalerazi, urbiñerazi...—

Gaizka BARANDIARÁN

